

ALTXORRAREN BILA

Orain dela 5.000 urte Lupin izeneko herri txiki batean, familia bat bizi zen. Izartxo familiako txikiena zen. Bera oso abenturazalea zen eta leku berriak ezagutzea gustatatzen zitzaion. Izartxon familiak sari, altxor, domin... horrelako pila bat zeuzkaten baina Izartxok ez zuen horietako saririk lortu eta batzuetan pentsatzen zuen ez zela ezertarako gai. Izartxok lagun bat zuen, Zortzi deitzen zena eta olagarro bat zena. Zortziri asko gustatzen zitzaion jostea. Izartxok ez zion ezer esaten Zortziri, ez mintzeko baina berarentzat jostea oso aspergarria zen eta pentsatzen zuen ez zuela ezertarako balio

Egun batean Izartxo eta Zortzi parkean zeuden jolasten eta Izartxok kontatu zion Zortziri batzuetan pentsatzen zuela ez zela ezertarako gai. Zortzik Izartxo kontsolatzeko esan zion hori gezurra zela eta bazela gai gauza asko egiteko Izartxok hori entzunda hobeto sentitu zen. Egun hartan Izartxok Zortziri gonbidatu zuen bere etxera jolastera eta bazkaltzera. Jolasten zeudela Izartxon amak oihu bat bota zuen.

- Izartxo joan ganbarara gabonetako apaingarriak hartzera mesedez!
- Bai ama oraintxe joango gara!- esan zuen Izartxok.

Ganbaran gauza zahar pila bat zeuden eta Izartxo gustura joaten zen hara gora beti gauza berriak topatzen zituelako. Apaingarriak topatzen ari zirela kaxa misteriotsu bat topatu zuten. Izartxok azkar batean zabaldu zuen eta Zortzik Izartxoren aurpegi hori ikustean azkar batean kaxara hurbildu zen eta hor ikusi zuen. Altxorraren mapa bat!!! Biak harrituta gelditu ziren, eta Zortziri ideia bat etorri zitzaion burura.

- Izartxo! Hau da zure aukera altxor bat edukitzeko
- A! Arrazoia! Horrela nire familiari erakutsiko diot gai naizela zerbait lortzeko.

Biak pentsatu zuten hurrengo egunean gelditzea altxorra aurkitzeko. Janaria, jolasak eta bidaia batera eramaten diren gauzak hartuz.

Hurrengo egunean Zortziren gurasoen itsasontzia hartu eta bidaia hasi zuten mapak itsasoa zeharkatzea esaten zuen eta. Izartxok eta Zortzik zer egingo zuten atxorrarekin pentsatzen ari ziren. Zortzik josteko makina bat nahi zuen eta Izartxok litxarkeri pila bat erosi nahi zituen.

- Baina Zortzi altxorraren zati bat gorde egingo dugu jendeak ikusteko gu altxor bat lortzeko gai garela- esan zuen Izartxok

Eta Zortzik baietz egin zion buruarekin. Bi gautan ia bidaia osoa eginda

zuten. Hirugarren egunean arratsaldean meriendatzen ari ziren bitartean, itsasontziko oihala pixkat arraro zebilen baina bi lagunek ez zioten garrantzia asko eman, haize handia bait zebilen. Bapatean PUM!!! oihala apurtu egin zen. Itsasontzia norabidea galtzen hasi zen eta Izartxo larritzen hasita zegoen. Burua biratu zuenean Zortziri begiratzeko Zortzi bi makila eta soka batekin ikusi zuen eta ez zuen sinisten itsasontzia norabidea galduta eta Zortzi jolasean egotea baina gero konturatu zen josten zebilela!!! Bi makilak ez ziren makilak orratzak ziren eta ez zen soka bat, haria baizik. Baina zertan ari zen egoera hartan josten? Zortzik josten bukatu zuenean oihala apurtu zen tokian jarri zuen jositakoa eta Izartxo kontutatu zen oihal berri bat josten ari zela. Azkenean Izartxo konturatu zen jostea baliagarria zela eta bere lagun Zortziri eskerrak eman zizkion.

Laugarren egunean heldu ziren eta ez zen beste herri bat ez, irla bat zen! Biak mapan begiratu zuten ea non zegoen altxorra. Korrika joan ziren topatzera eta heldu zirenean, ez zegoen ezer! Biak harrituta mapa berriz begiratu eta norabide ona hartu zutela ikusi zuten. Amore eman gabe irla guztitik topatzen hasi ziren baina zoritxarrez ez zuten ezer topatu. Momentu horretan amore emanda lurrean jarri ziren deskantsatzen eta Zortzik bota zuen:

- Uf zelako korrikaldia!!! Orain gosea daukat- esan zuen arnasestuka.

Izartxok zuhaitz baten goian janaria ikusi zuen eta Zortziri esan zion. Zortzi zuhaitz gainera igo zen eta hor ikusi zuen altxorra eta sustoarekin zuhaitzetik jausi zen. Izartxo arduratuta, ea ondo zegoen galdetu zion eta Zortzik bere galdera alde batera utzi eta hau esan zion.

- Izartxo! Izartxo altxorra zuhaitz gainean dago!
- Benetan?- esan zuen Izartxok.

Zortzik baiezkotzeko keinua egin bezain laster zuhaitzera igo eta altxorra hartu zuten, biak harritu gelditu ziren.

Bi egun pasatu ziren eta Lupinera helduta zeuden, itsasontzitik jaisterakoan Izartxok Zortziri esan bere gurasoak harrituta geldituko zirela. Zortzi bere etxera joan zen eta Izartxo berera. Izartxok eraman zuen altxorra bere gurasoei erakutsi nahi zielako. Etxera heldu zenean bere gurasoak harrituta gelditu ziren. Izartxok galdetu zien ea orain harro zeuden berataz, bere gurasoak aurpegi arraroarekin begiratu zioten. Izartxok galdetu zuen zergatik begiratzen zioten horrela eta bere amak hau esan zion.

- Gu beti egon gara harro zutaz ez duzu altxor, sari... horrelakorik behar gu zutaz harro sentitzeko. Guk berdin berdin maite zaitugu!

Izartxok ez zuen ulertu baina gero konturatu zen ez zuela ezer behar bakarrik pertsona ona izan behar zela ez bazen pertsona ona izaten ez zirela berataz harro egongo.

Ordutik aurrera bere familiaren hitzak entzun eta gero inoiz ez zen bakarrik

sentitu. Eta hala bazan eta ez bazan atera dadila Lupineko herrian.

Ura